

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Iratxe Gómez Casado hirugarren alkateorde izendatzea

Ikusirik Ander Bengoa San Juan zinegotziak 2025eko ekainaren 4an karguari uko egin diola, eta Iratxe Gómez Casado zinegotzi berria 2025eko irailaren 10ean izendatu denez, eta Toki Araubidea-ren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikulua eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiaren 46.1 artikulua ematen dizkidaten eskumenak baliatuz, honako hau erabaki da:

Ander Bengoa San Juan zinegotzia Alegría-Dulantziko Udaleko hirugarren alkateorde kargutik kentzea.

Iratxe Gómez Casado zinegotzia Alegria-Dulantziko Udaleko hirugarren alkateorde izendatzea.

Alkateorde izendatutako pertsonari dagokio, kargua onartu ondoren, alkatea ordeztzea, bere eginkizun guztietan eta izendapenaren hurrenkeran, alkatea ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo bere eskumenak betetzea eragozten dion eragozpenik dagoenean.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Alegría-Dulantzi, 2025eko urriaren 3a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA